

NARRATIBA

Giza grinak


AMORRUAREN UME

Jim Thompson. Itzultzailea: Miel A. Elustondo
Igela, 2009
343 orrialde. 10 euro

Iban BALERDI

Duela pare bat urte Jim Thompson-en "1280 arima" irakurri nuenetik, bere beste aleren bat probatzeko gogoia izan dut. Gertatu ohi da, hala ere, lehenengoak hain liluratu uzten zaituenean, aho gustu gozo hori ez mikaztearren edo, beste autore batzuegana jotzea. Azkenean, aitzakia txiki-riren bat topatzen duzun arte berriro berarengana hurbildu eta zer eskaintzen dizun dastatzeko. Kasu honetan, Michael Winterbottom zinegile britainiarrak bere beste nobela bat, "The killer inside me" (euskaraz "Hiltzailea nire baitan", sail berean argitaratua) oinarri hartuta, pelikula bat egin duela jakitea izan zen. Berriz ere azaldu zen Jim Thompson nire aurrean, eta berriz ere gozatu dut bere lana irakurtzen.

Hogeita hamar bat eleberri idatzi zituen, baita pelikula handien gidoiak ere (Stanley Kubricken "The killing" eta "Paths of glory"-renak, besteak beste), baina Jim Thompson-ek (1906-1977) ez zuen bizirik zela loria handirik ezagutu. Frantziar ezagunago bihurtu zen bere sorterrian baino, hasieran aipatutako nobelagatik batez ere. Estatu Batuetan, aldiz, hil zen garaian ezin zitekeen bere lanik liburu dendetan aurkitu. Dena den, gerora jarraitzaile andana lortu du eta genero beltzeko izar bilakatu da.



"Amorruaren ume", bere azken nobela izan zena, ez da denen gustukoa izango. Intzestua, tratu txarrak, prostituzioa, irainak edota drogak azaltzen dira bertan. Gainera, muturreko egoerak jorrazteko erabiltzen ditu, zenbaitetan irakurlea atzera egitera eramanez dezaketenak. Mundu bortitza deskribatzen du, inguru deseroso batean murgilarazten zaitu, baina modu naturalean egiten du, gizartearen eta gizabanakoaren ahuldade eta krudelkeriak humanoak direlako.

Protagonista nagusia ama zuria duen Allen izeneko mutil beltza da, Amak sexu abusuak egin zizkion txikitari, ezin baitzuen garaiko gizartearen haur beltza izatea

onartu, eta semeak honen guztiaren ondorioak pairatu eta pairaraziko ditu. Iritsi berria den institutuaren ezagutuko duen jendearen kontra egingo du. Eta bera gaizkia egin eta jendeari min emateko munduratu izan denez, lan hau ahalik eta finen egiten saiatuko da. Pixkanaka, bera nolabait izorratu dutenen aurkako mendekuak prestatuko ditu, bakarra ere bere jomugatik kanpo utzi gabe.

Kontraesanak bata bestearen atzetik azaleratzen dira istorioan zehar, agerian utzi nahi ez diren desioak, desio bihurtzen diren tabuak, tabutzat hartzen diren kontuak, gustuko dugun eta mespretxatzen dugunaren arteko hari fina. «Eta harekin bat egiten nuela sentitu nuen, neu ere beti norabide ezberdinetan ibili nintzelako. Ihes egiten nion deabruarekin topo eginez beti. Neure buruarekiko zalantza ez betea beti, baita neure buruaz seguru nengoenean ere. [...] Zuzen zegoena egiten saiatu nintzen, noiznahi eta nonahi. Baina zuzena eta okerra identifika ezinak gertatzeraino zeuden endredatuta nire burmuinean, eta, ondorioz, haiei buruzko neure kontzeptu partikularrak eraiki behar izan nituen».

Jim Thompsonen idazkerak badu ez ohikoak diruditen istorioak erarik naturalenean kontatzeko gaitasuna. Irakurtzen zozan heinean ez zaitu misterioaren bila eramaten, ez zaitu ustekabeko ustelen atzetik jartzen... baina harrapatzen zaitu. Oraingoan ere, gizakiaren alderik okerrenak erakusten ditu, bai kontatzeko bai entzuteko krudelegiak gerta daitezkeen giza ekintzak.



Mikel IBARGUREN

Poesia zer (ez) den

Poesia betirako zela pentsatu izan dut, mundua poesiaren bitartez ulertzen saiatu izan naiz beti, poesia hil dela iragarri ditugun arte. Hitzaren azken gordeleku zenaren hilkanpaia jo dituzte engoitik, baina ez dugu horregatik hiltzera kondenatuko. Garaiak aldatzera datozen honetan, poesiari zer leku edo funtzio eman nahi zaion behar da birpentsatu, mundu aldakor honek etengabeko gogoetan murgildurik egotea eskatzen baitu. Eta ildo horretan, poesia –liburutik inoiz baino gehiago aterata– espazio berri bilatu behar da esango nuke. Esperientzia berrietan txertatuz doa. Zentzu horretan ikusten dut bizirik poesia, poesiak lurralde bat –Eako labarretatik, Senperoko pentzeetaraino– gauzatzen duenari, bere hatsaren murmurioa sentitzen baita lau haizetara. Bizi dela iragarri.

Dena dela, uste dut, beste generoekin ez bezala, poesia beti bizi izan dela muga lausoan, lanbropean bezala; gauza jakina baita literaturaren dorretzeko ate txikia baina ez dela. Poetak ez du zerurik espero, baina poeta idazlea den galdetu beharra al dago? Edo noiz egiten da idazle? «Poeta bat naiz, bai, hori badakit; baina ez nuke idazle izan nahi» zioen Gertrud Kolmar-ek, adibidez. Isabel Escuderi, berriz, honakoa irakurri nion, berriki: «Ez zait gustatzen egiten dudanari poesia deitzea.» «Poesia ez da komunikabide bat, arte bat baizik», dio Marialuz Albuja Bayas-ek. Poesiak probokatu egin behar duela Manel Quealt-ek. Xabier Letek dioenez ezin daiteke egiatzko poesiari sortu «oinaze eta sufrimendurik gabeko esperientziarik gabe». Mailua edo ingudea, zer da poesia?

Alabaina, bukatzeko, hilkanpaia aditzen ditugun honetan eta poesiaren kutxa beltza aurkitu ezinean gabiltzanontzat, (in)kontzienteki, Kepa Murua zarautzarraren hitzekin gelditzen naiz oraingoz, hots: "Poesia etorkizunaren parte da". Gainontzekoa literatura da. Edo.

KALERATU BERRIAK



REFLEXIONES SOBRE EL NAZISMO

ESCRIBIR DESPUÉS DE AUSCHWITZ | Günter Grass
Paidós, 2010
144 páginas. 12 euros

Libro que recoge dos escritos del Premio Nobel de Literatura Günter Grass, a propósito de las consecuencias de la Segunda Guerra Mundial. En él, Grass reflexiona sobre la imposibilidad de escribir poemas tras el horror de los campos de concentración nazi y sobre los peligros del nazismo.



AMISTADES PELIGROSAS

BELLA MALICIA
Rebecca James
El Aleph editores, 2010
288 páginas. 18 euros

Thriller psicológico sobre adolescentes. Alice y Katherine se conocen y conectan de inmediato, hasta el punto de hacerse amigas inseparables. Todo parece perfecto entre las dos, pero cuando sale a la luz el pasado oscuro de Katherine, ésta comprende que Alice no era la persona a quien confiar su secreto.



SIMBOLOGÍA DE UN PUEBLO

HISTORIA Y MEMORIA DE LOS SÍMBOLOS DE NAVARRA
Álvaro Baraibar | Pamiela, 2010
22 euros, 593 páginas.

Desde 1910 hasta hoy, ha habido diferentes interpretaciones acerca del significado del escudo de Navarra. Es eso precisamente lo que trata de explicar Álvaro Baraibar: Qué carga simbólica han tenido "las cadenas" en los últimos cien años y cuáles han sido las causas y razones que explican estas diferencias.



UN BUEN PASTEL

AMIGAS ENTRE FOGONES
Kate Jacobs
Maeva, 2010
368 páginas. 19,50 euros

Jacobs, autora de la exitosa "El club de los viernes", narra en esta novela la historia de Augusta Simpson, una estrella de televisión al mando de un programa gastronómico. A punto de cumplir 50 años, Simpson se siente agobiada por sus obligaciones... pero cuando menos se lo espera, llegarán las sorpresas.